

# BESTELAKO XEDAPENAK

## SEGURTASUN SAILA

### 611

*EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 24koa, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria, Ajangizen dagoen Maier, S. Coop establezimenduaren Kanpoko Larrialdi Plana jendaurrean jartzeko dena.*

Substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituen 840/2015 Errege Dekretuaren 16. artikuluan, eta istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gain eskumena daukaten autonomia erkidegoko organoak zeintzuk diren adierazten duen otsailaren 20ko 34/2001 Dekretuaren 3. artikuluko f) eta k) letretan ezarritakoa betetzeko, gai arriskutsuak dituzten enpresen Kanpoko Larrialdi Planak jendaurrean jarri behar dira, baldin eta gai arriskutsu horien kantitatea 840/2015 Errege Dekretuaren I. eranskineko 1. eta 2. zatiko 3. zutabearen zehaztutakoa edo handiagoa bada.

Industrialariak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bidez bidali dituen agiriei erantzunez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, beste erakunde eta administrazio-zerbitzu batzuekin batera, Ajangizen dagoen Maier, S. Coop enpresaren Kanpoko Larrialdi Plana egin du. Plan hori jendaurrean jarri behar da 20 egun baliodunez.

Horregatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ajangizen dagoen Maier, S. Coop enpresaren Kanpoko Larrialdi Plana jendaurrean jartzea, ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera 20 egun baliodunez, beharrezko jotzen diren alegazioak aurkez daitezten.

Aurreko artikuluan aurreikusitakoa bete ahal izan dadin, Kanpoko Larrialdi Plana Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (La Torre eraikina, Forondako Atea 41, Vitoria-Gasteiz). Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza elektronikoa egongo da eskuragarri.

Bigarrena.– Alegazioak aipatutako epe horren barruan bideratu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzara (La Torre eraikina, Forondako atea 41, 01010 Vitoria-Gasteiz); sail horretako erregistro orokorrean aurkeztuko dira, edo bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako moduetako edozein erabili ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 24a.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria,  
JOSEBA MIRENA ZORRILLA IBAÑEZ.